

2011 october 22

Newspaper library

BILATU

[GARA](#) > [Idatzia](#) > **Kultura**

Europar arrakasta lortu duten lanak, euskal irakurleen eskura

Gilles Vanderpoot aktibista gaztearen eta Stephane Hessel eskarmentudun diplomazialariaren solasaldi bizi-bizia; Emmiren eta Leoren maitasun gutunak; independentzia lortu berri, emozioz dar-dar egiten duen Estonia; eta Arkadia zaharreko mitoak ekarri ditu Batera sailak.

Maider IANTZI | DONOSTIA

Ereinen eta Alberdaniaren Batera sailak askotariko liburuak euskaratu ditu, bere asmoa «beste hizkuntza batzuetan arrakasta izan duten lanen atzetik abiatzea» baita, eta gero horiek euskal irakurleei eskaintzea. Josu Zabaleta itzultzaileak azaldu bezala, «iturburu askotara jotzeak aberastuko gaitu, horrek egingo gaitu autonomo».



Konprometitu zaitetze!

Stephane Hesselaren liburuetatik euskaratutako hirugarrena baina argitaratutako bigarrena da Josu Zabaletak itzuli duen hau. Gai askori buruzko elkarrizketa batzuen ondorio da. «Non daude gaur egun eskandalu nagusiak?», galdetzen dio, adibidez, Gilles Vanderpootenek Hesseli. «Eskandalurik handiena ekonomikoa dela iruditzen zait niri; desberdintasun sozialena, bere osotasunean oso estu loturik dagoen planeta honetan aberastasunik handienaren ondoan pobretasunik larriena egotea».

Hessel hagitz pertsona interesgarria dela eta horrek liburuari balioa ematen diola nabarmendu zuen Zabaletak. 1917an jaio zen Berlinen, baina txikitatik Parisen bizi da. Erresistentzian borrokan ibilia da, atxilotua eta ihes egina, eta gerra amaitu ondotik diplomazialari hasia. 1948an Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala idatzi zuenetako bat izan zen.

Ipar haizearen kontra

Irati Elorrietak ekarri du euskarara Daniel Glattauer vienarraren libururik arrakastatsuen. «Emmi eta Leo dira pertsonaia nagusiak. Emmi mezu elektronikoa bat bidaltzen du aldizkari baten harpidetza ezeztatzeke, baina nahastu, eta Leok jasotzen du. Hezibide onekoa denez, erantzun egiten dio, eta Emmiri gustatu, eta beste mezu bat igortzen dio», agertu zuen Inazio Mujika editoreak. Hala sortzen da bien artean maitasuneko harreman birtual bat.

Lanaren dohainen artean, kontaketa inteligentea, inoren postan sartzearen morboa, gidoi lan perfektua eta jolasa aipatu zituen, baita sentsazio bat ere: «Non arraio ikusi nau Glattauerrek ni?». Tanttakak izen bereko antzezlanaren estreinatua du, liburuan oinarritua.

Garbiketa

Sofi Oksanen finlandiarren eleberri hau antzerki obra izan zen liburua baino lehenago. Stalinen diktadura sufritutako adineko emakume baten eta mafia erusiarren esku prostituzioan aritu behar duen neska gazte baten erlazioa ardatz duen istorioa euskaratzea familiako lana izan da, Mia Rissanen eta Joseba Ossa senar-emazteak eta alaba aritu baitira elkarlanean. «Erronka polita izan da hain ongi ezagutzen ditudan finlandiar hitzak euskaratzea», adierazi zuen Rissanenek. Ossak, aldiz, 1991n Estoniara bidaiatu zutenean, emozioz borborka sumatu zutela ekarri zuen gogora eta eleberri osoan agertzen den testuinguru horrekin batera aipatu zuen Euskal Herriak bizi duena.

Arkadia iratzarria

Kai Meyer idazle alemaniarrek Siziliako mafiaren zirrikituak erakusten ditu arkadiar mitoaren ikuspegi berezi batekin uztartuta. Lan hau ez dago gaztelaniaz eta, hala ere, euskarara ekartzea apustu txiki bat izan da Baterarentzat, editoreek erran zuten bezala. Alcantara eta Carnevale familien arteko lehia ageri da lanean, Rosa Alcantara eta Alessandro

Carnevareren ezinezko maitasuna, mafiak, dirua, negozioak... eta horiekin batera, mundu fantastiko bat.

 Inprimatu  Postaz bidali

Gehitu artikuloa:  del.icio.us  zabald.com

Igo 

[Home](#) | [Printed edition](#) | [Topics](#) | [Shop](#) |

euskalherria.com

© Baigorri Argitaletxea | [Contact](#) | [About us](#) | [Advertising](#) |  [RSS](#) |